

Kaixo Ekai,

Ez dakit entzuten didazun, ez dakit niri entzuteko gogo handirik duzun ere. Azken finean, nire errua izan da hau dena, nire erruz, orain ez zaude gure artean. Horregatik idatzi dizut, barkamena eskatu eta zuri horren gaizki pasa arazteko benetako arrazoia zein den kontatzeko.

Zu mutil aparta zinen. Oso ondo konpontzen zinen jendearekin. Pertsona oso indartsua zinen, bizitzak ekartzen zizunari aurre egiten zenion. Zure ondoan bat ahula sentitzen zen. Nik sekulako inbidia nizun, nola ez nuen ba inbidia edukiko! Inbidia horrek, eta zu baino gehiago izateko nahi horrek itsutu egin ninduen. Zure aurka joan nintzen, behin eta berriro, atsedetik hartu gabe. Ondo baino hobeto nekien zein zen zure puntu ahula eta hortik jotzea erabaki nuen. Momentu horretan ez nintzen konturatu zer ari nintzen egiten, zertan bilakatu nintzen. Orain badakit, ez dut onartu nahi, nahiago nuke dena amets bat izango balitz, baina ez, egia da, egia gordina. Hiltzaile bat naiz, nire erruagatik gertatu da hau dena, niregatik izango ez balitz orain hemen egongo zinateke. Ez zen justua izan. Nik egon beharko nuke zure lekuan, baina, bizitza inoiz ez da justua. Askotan, egiak, gezurrak baino min gehiago ematen du. Erruduntasunaren arantza bihotzean ziztatua daukat, eta ez dit lo egiten uzten.

Badakit damutzeak ez duela ezertarako balio, egina egina dago. Hala ere, barkamena eskatu nahiko nizuke. Nire heldutasun ezak uste baino min gehiago eman du. Inor ez da jabetzen inbidiak nolako kaltea eragin dezakeen ezbeharrenbat gertatu arte. Benetan sentitzen dut gertatutakoa. Nahiago nuke gutun honetan kontatutako guztia aurrez-aurre esan baina, ezinezkoa da.

Esan beharreko guztia esana dago. Zuk uste baino lehen elkartuko gara, baina hori oraindik posible ez denez ikusi arte esan behar. Hitz ematen dizut horrelako zerbait berriro pasa ez dadin ahaleginduko naizela. Espero dut zauden tokian zaudela merezi duzun bezala tratatzea. Zoriontsu izan.